Lazunen izariaz

Kontakizun irritsuak



JOSEBA MIKEL UGALDE

Marrazkiak - Amets Urresti

Zuri

Negar-malkoak izuri ondoren
irribarre berri bat sortzen
lagunduko dizulakoan

Bihotzez

Joseba Mikel Ugalde

(Bermeo 1956)

...

Ai gure Bermio (2010)
Hirurehun eta hamar segundo haiek (2012)
Urertzeko mamarrua (2013)
Muakiss (2014)
Mesedez itxi atea (2021)
Naizen artean (2022)
Lazunen izariaz (2024)

...

Kontaktua - gurebermio@gmail.com

Egilearen liburu guztiak, sarean daude irakurgai.
Booktegi.eus / Zubitegia.armiarma.eus
Urertzeren uberan.blogspots.eus
Sortzaileak.eus

Lazunen izariaz

Kontakizun irritsuak

3
Hitzaurrea
Beltzaren muinetik, koloreen muinoetara

17
Lazunen izariaz
Kontakizun irritsuak

73
Amaieraren melodia
'Hasiera bat'

79
Hitzatzea
Markos Zapiain

Eskertza bikoitza

Kontakizun batzuk, beren umore edo ironiazko mezuak osatu edo indartu nahian, testuen ondoan, irudi edo marrazki bat daramate. Marrazkiak, **Amets Urresti Balenciaga**, iloba maitagarriak egindakoak dira. Milesker.

Hitzatzea, **Markos Zapiain Agirre** aspaldiko lagunarena da. Nire lehen lana bataiotu nuenean, *hitzaurre-bedeinkapena* berea izan zenez, nire azken idazlana izango den honetan, 'ni' idazlearen hileta egunean ere, *errespontsu-hitzatzea* berea izan behar zuen. Norena bestela. Milesker.

Hitzaurrea

Beltzaren muinetik, koloreen muinoetara

Beltzaren muinetik, ...

‘Bizitza, beltza barne duen ortzadarra da’.

YEVGENY YEVTUSHENKO

Poeta errusiarrak esandakoa egia dela dakidan arren, niretzat, ortzadar ederrenak, nire bilobek marrazten dituztenak dira, xumeak, alaiak eta koloretsuak direlako. Beltza, begira dut. Zain da.

Nire bilobei eskeinitako bilogia argitaratu nuenetik, idazteko gogoa erabat lokarturik izan nuen, baina goiz hartan, emakume hura buruarekin agurtu nuenean, *Klik!* batek, kontatzeko grina sutsuki berriro esnatu zidan.

Goizero eta goiztiar, dela haize edo euri, han joaten da amona, bere biloba bakarra ito zen moilara bisita egitera. Aldian behin, eramandako loreak zimeltzean, berriak eramaten dizkio.

Ezbeharra gertatu zen egunean, herrian hunkidura eta dolumin sakona izan zen, herriko gazte bat -gurasoen seme bakarra- portuan lanean ari dela itotzea, 'herri-dolu' mingarriena delako.

Gehienetan kalean gurutzatzen gara, (sarri, ematen dudan lehen *Egun on!,* harekin izaten da), baina orduan balkoitik agurtu nuen, eta perspektiba berri hark, zerbait mugiarazi zuen nire erraietan. '*Bizitzak aurrera darrai*' zioen.

Ene barneko bikiak, hizketa bizian hasi ziren, baina ni entzungor, hausnarrean.

Oraingo helburua, irribarrea izango da. Lehenago, urte hauetan idatzitako 'oharphonak' begiratu behar ditut, eta gero, inoiz idatziriko pasarte laburrei ere gainbegiradatxoa egingo diet, ea eskualdi berri batekin, baten bat dirdaitsuago ikusten dudan. Kutxa zaharrean ere murgilduko naiz, ea irribarrea sortarazteko balio didaten ohartxo batzuk aurkitzen ditudan.

Zeozer aterako delakoan nago, ezusteak eta ganbara zaharrak, betidanik, lagun onak ezezik maitaleak ere badirelako.

Hurrengo goizean, kafe goiztiarrena hartzera joan nintzen, gero, amona eta biok, bilobak ikastolara eraman behar genituelako. Errutina gorena, ederrena.
Bezperan ordu berean izan nuen *Klika!,* oraindik pil-pilean, buruan nerabilen.

Andeko tabernako bi neba-arrebak, heriotza kontuetaz ari ziren, eta ohi bezala, lehen bezeroa nintzenez, berehala, ni ere gaian murgildu nintzen.

"*Nire ordua heltzen denean, etxekoek jada badakite nire errautsen betirako kokalekua zein izango den. Idatzita utzi diet nora bota behar duten (nauten), espresuki liburu eta abesti batean aipatu nituelako, badaezpada. Agindu zehatz eta argi batekin gainera. Bilobatxoek jaurtiko naute eta portura behar du izan. Hurbilean izango dute, etxe-aurrean bertan. Beraien ondoan*".

Gazteak ezustea irentsi eta bere onera etorri zenean, zera esan zidan, "*Txo, lazunek berehala irentsiko zaituzte!*".

Goizalde zirin hartan, Andekoko lagunak esandakoari bueltaka hasi nintzen.

Badakit lazunak jatunak direla, portutik goazenean eta bilobek ogi-mamiak jaurtitzen dizkietenean, lamerako arto-txoriak bezala, berehala jaten dituztelako.

Gero, *Arrain xumeak dira, eta betidanik atseginak egiten zaizkit,* pentsatu nuen. Sarri askotan, aurreiritziek ezustekoak ematen dizkigutenez, lazunetaz sakontzea erabaki nuen. Sarean aurkitu nuen informazio batek, gauza benetan interesgarriak eskaini zizkidan. Arrain xumeak bezain bereziak dira.

Hauxe da Claudio Eliano erretoriko erromatarrak, *De Natura Animalium* liburuan, *'Mugil cephailus'* edo lazunetaz idatzi zuena.

> *"Arrain horretatik, bere neurritasuna, izaria edo jatuntasunaren kontrola nabarmentzen dira. Beste arrain eta itsas animalia biziak inoiz ez dituenez depredatzen, esaten da haiekin itun bat egina duela; izan ere, bere elikagaia hildako arrainetan bakarrik aurkitzen du, eta berak buztankada baten bidez egiaztatzen du jan aurretik hala den ala ez".* Argiago ez dago azaltzerik.

koloreen muinoetara.

“Barrea, gure aurpegietako negua uxatzen duen eguzkia da”.

VICTOR HUGO

Gure une ilunenetan, bakardade sakonenean, irribarrea azalarazten dizkiguten irakurketei esker, erabat galduriko begitarte irribera berreskuratuz, garai argiagoak bizitzeko gogoa pizten zaigu. Garen bitartean, udak eta neguak.

Liburu honen mamia, hau da, nire gogoetak, kontakizunak, mikroipuinak, eta batez ere irribarrea helburu duten nire ateraldiak, bat datoz lazunen izaerarekin, haiek bezala, dastatzeko xumeak edo arruntak direlako. Apaltasun horrek ordea, gozaraztea helburu duen nire sormen umoretsu eta ironikoari, askatasuna, indarra eta adorea ematen dizkio. Beraz, argi dut 'lazuntasunez' lasai idatziko dudala.

Lazunaren izaera, neurritasuna eta zuhurtzia, hau da bere izaria, ezinegokiagoa iruditzen zait, ezkata gisara, liburuaren azalean agertzeko. Hori dela eta, izenburua, *Lazunen izariaz* izango duela erabaki dut.

Eta betiko kontua, orrialdeetan zer, zenbakiak jarri edo ez. Badakit irakurle batzuk nahiago dutela izatea, oharrak egiterakoan lagungarri izaten dutelako, beste batzuei aldiz, bost axola. Edo sei.

Ez da ohikoa izango, baina oraingoan bakoitiak bakarrik jartzea erabaki dut.
Liburuak irekitzen ditugunean, bi orrialde izaten ditugu begibistan, eta bien zenbakiak jartzea, kontu inozoa dela pentsatu dut, agertzen den zenbakiaren atzekoa zein den jakitea erraza delako. Txanponetan halaxe da.
Azalean, orbanak diruditen arren, portuko lazunak dira. Argazkiari iragazkiak Klik eta Klik. Jik eta jak-ean.
Idazlan hau pertsona batekin alderatuko bagenu, haren ezaugarri nagusiak hauek izango lirateke; txikia eta xumea, irribarrez eta agur egiten.
Ezagutzerakoan aldiz, hauek izango lirateke bere ahots eta arimak.
Hitza ahots, liburuxka honetako ateraldi gehien-gehienak, gure hitz batzuek ahoskatzerakoan edo idazterakoan, beren artean dituzten antzekotasunetan oinarritzen dira. Eta harrikadaz idatziak.

Horretarako, Fonotik Grafora doan 'homobide' estu eta erogarria hartzea erabaki dut. Bidaiaren joan-etorrian, hitzak jolasean jartzen ahalegindu naiz, helburu bakar eta soil batekin, euskara eta umorea estuki uztartzea. Gure kosmosean, ezohiko bikotea zoritxarrez.

Kontakizunak, *Urertzeren bidetik doaz, nire hastapenetako maisu huraren uberan, haren irakaspen guztiak, ikasliburuetatik haratago zihoaztelako.

Tarteka, kontakizun irritsuei atsedentxo bat emanez, egunerokotasunak iradokitako gogoeta xumeak, edota harriduratxo bat eragin didaten bitxikeri batzuk ere txertatu nahi izan ditut. Denak xaloak bezain egiazkoak dira.

Idazlan honen ariman, amaiera eta agur mezu argiak daudenez, liburuxka mehe hau nolabait, ene hileta literarioan eskuratutako gomutagarri bat litzateke.

*Nire lehen hiru liburuen haria eta arima.

Liburuxka honen txikitasuna, berezkoa eta osokoa denez, bere itxura ere, halakoxea izatea nahitaezkoa zuen.
Azkenean halabeharrez, jakan, poltsan edo bakeroen atzekaldeko poltsikoan eramateko neurriak izango ditu. Hau ere, ezohikoa da gurean.

Idazlan hau sarean eskegita izango denez, noiznahi eta nonahi, mugikorrean, atalka edo jarraian, modu errazean irakurtzekoa izango da.
Kontakizun irritsu batek eta lagun hurko baten deiak eragiten digun poza, berberatsua da. Bientzat prest gaude beti.

Lazunen izariaz

Kontakizun irritsuak

“Irribarre dirdaitsu baten lehen printzak,
begietan islatzen dira”.

URERTZE

ARAUAK ETA ENPARAUAK

Euskara irakasterakoan, *Arauek,* helmugak eta mugak markatzen dizkigute, eta **Enparauek* aldiz, *¡Hara hauek!* esanez, oihanbideak eta bidezidor alaiak. Helburua, euskararen muinera heltzea bada, bidaian sortzen diren nekeak saihesteko, hobe da ikasleengan aldarte irrifartsu bat sustatzea.

Euskarako klaseetan, *Ezdagauzaberaka, etazerka* edo *nolalitekeka* aritzeak esaterako, *aditzei eta hitzei adi* egoteaz gain, barre egitea dakarkigu, eta barreak, erabat argi dezake arau azalpen astun bat.

* Euskara ezagutarazteko eta maitarazteko asmatzen diren edozein bide. Irudimena hiru dimentsioetara.

EZ DA GAUZA BERA - Sutan

Ez da gauza bera, *zutabea sutan egotea*, edo *Zu ta Bea sutan egotea*. Ez dira gauza bera izango, baina bai habearen erdigunean, eta baita zuenean, *egurre* da.

ANTXONTXO - Kideak

Euskarako irakasleak, *etazerka*, arbelean "*Pello elebiduna da, eta..*" idatzi zuen. Gero, ikasleei, "*Eta zer?*" galdetu zien.

Antxontxok irribarrez, zera erantzun zion, "*eta baita ele biduna ere*".

Irakasle hari, ezustekoak bilatzea gustatzen zitzaionez, klase amaieran, "*Galderarik?*" esateko ohitura zuen, ikasleengandik ikasteko bidea zuelako.

Behin Antxontxok, *nolalitekeka* ariketa erabiliz, hausnarketa hau luzatu zion.

"*Bai. Nola liteke, Pello eta kidea, bi lagun izatea, eta aldiz, Peru etakidea bakarra izatea?*". Pilota bihurri zetorren.

Irakasleak, barne irribarrea gordez eta *nolalitekeka* jarraituz, zera erantzun zion, "*Nola liteke, zuk herrian ehundaka garaikide izatea, eta nik ordea, Garai kide bakarra izatea?*". Erremate bikaina.

EZ DA GAUZA BERA - Berandu

Ez da gauza bera, "*Berandu da!*" esatea, edo "*Bera, Andu da!*" esatea.

(Anjel bera ere, noizbait nonbaitera berandu iritsiko zenez, "*Berandu da Andu!*" entzundakoa izango da. Oso gutxitan ziur).

ANTXONTXO - Auto-nobelez

Behin, Antxontxok literaturako irakasle kilikari, asmakizun pozoitsu hau luzatu (bere baitan, jaurti) zion;

“Ba al dakizu zertan duten antzekotasuna idazleek eta autoeskolako irakasleek?”.

Irakaslearen aurpegia itsustu egin zen. Erantzunarekin ordea argitsu.

“Ba batzuek, eleberriak prestatzen dituztela, eta besteek, L berriak”.

GABEZIA

Data eta inizialdun ohar isil-gordea.

‘Hitz piloa eta neurona ugarik, ez dute batere ziurtatzen, bakar bat ere ispilu-neuronarik. Adibideak nonahi’.

AMETS ARRANTZATUA

Astemeak jakin zuenean berak bidean uzten zituen oinatzei ugazaba astapotroak *arrastoak* deitzen ziela, gogaituta, heganean libre eta emeki zihoan hegazti bat zela amestu zuen.

BIKOTE BERRIA

Ikasgelara goiz sarturiko norbaitek, arbelean, geziz zeharkatutako bihotz bat marraztu, eta azpikaldean, *'Kepa-Sara'* izenak idatzi zituen.

Irakaslea eta ikasleak gelaratu zirenean, begirada guztiak bi norabide edo diana izan zituzten. Bikotearen irribarreek, halako zerbait aurreikusten zutela adierazten zuten.

Irakaslea idatzitakoa ezabatzera zihoanean, Sarak, *'Itxoin mesedez'* esan zion, eta urrats irmo batekin arbeleratu, eta idatzita zegoenari, galdera ikur handi bat gehitu zion.

Gela osoa barrezka hasi zenean, beheko lerroan gaztelera txit garbi batean, erantzuna erantsi zion.

'Pasará lo que tenga que pasar'.

EZOHIKO GALDERA

Kazetariari ezohiko galdera bat atera zitzaion, "*Hitz gutxitan, nola azalduko zenuke zein den bizitza baten ibilbidea".* Matematikaria harrituta, ezin sinistu, hitzaldia prestatzen jarraitu zuen.
Gero, apunteei begiratzeari utzi gabe, zera erantzun zion,

"*Zero, zero koma, koma, eta zero".*

KEINUKA ITSASPEAN

Adituen esanetan, gizakion atzetik animaliarik adimentsuenak izurdeak dira. Lo egiterakoan begi bat irekita izaten dutela kontutan hartzen badugu, esango nuke gure aurretik direla, gure adituak lo sakonean ametsetan daudenean, izurdeak 'izuhur' direlako.

EZ ALA BAI

Ezkontza hitza iragarrezina da, zeren *'bai'* esanez eta *'ez'* hasiz, apika dirdaitsua edo agian alderantziz.

Senak diost, zeremoniari '*baikontza*' deituko bagenio, ('*Ni ere hemen baikondu nintzen*'), '*baikontza-hauste*' gutxiago izango liratekela.

EZ DA GAUZA BERA, BAINA ...

Ez da gauza bera, sortzailea izatea edo zortzailea izatea. Baina, ...

Sortzailea, beti egongo da zorretan edandako iturriekin, eta zortzailea bere zereginetan setatsua eta aditua bada, dudarik gabe, badu sortzailetik ere, gezurretan aritzeko eta engainuak antolatu eta aurrera eramateko, irudimena eta sormena izatea, nahitaez behar-beharrezkoak direlako.

LITERATURA RINGEAN

"Kontalari on bat, boxeolari oso azkarra da; hasierako bere kolpe asko ez dira oso eraginkorrak, aurkariaren erresistentzia sendoenak txikitzen ari baitira. Eleberrian puntuka irabazten da, ipuinean aldiz KOz".

Julio KOrtazar

Hala izanik, argi dago literaturan ere, irakurraldiaren round-ak luzatzeak indarrak galtzea dakarrela, eta ondorioz, norgehiagoka KOz bukatzeko aukerak gutxitzen duela.

KOntakizun laburretan, irakurle KOitaduak KOlpe neurtuak jasotzean, KOnortea galtzen du, eta ondorioz KOnbatea. KOz noski..

Liburuxka apal honek, ezin duenez ez KOz ezta puntuka inolako borrokaldirik irabazi, berdinketan jarri du bere helburu bakarra, ni bezalako idazle amateur-ahul batentzat, literaturaren ringera igo eta galdu gabe jaistea, garaipen ederra delako.

DENBORA KONTUA

"Denborak dena iragantzen du. Pazientzi apur batekin ikusi dut, ahaztezina ahaztua izatea, eta ezinbestekoa soberan egotea".

G. GARCIA MARQUEZ

Gure iragana, hitzez hitz liburu batean idatzita balego, klase guztietako pasarteak irakurriko genituzke, lelo tematsuak gerora lelokeri hutsak izan zirenak, edo iritzi sasisakontsuak sekula inora iritsi ez direnak, esate baterako.

ERABILERA HITZA

Apika, ausaz, akaso, agian, edota beharbada, 'erabilera' hitzaren erabilerarik erabiliena, *era* teorikoan eta *bilera* batean izango da.
Kalean hitz hori, fitsetan fits baino ez.

ARTEA ITZALETAN

Oharphonean, japoniar baten izena, eta ‘itzalak’ hitza idatzi nituen. Izena ahaztua nuen, itzalak aldiz gogoan.

Kumi Yamashitaren artelanak ezin dira ukitu, hark, itzalak sortzen dituelako. Objektu desberdinekin, pertsonen soslaiak, edo bihurritutako burdin hariekin, hitzak ateratzen ditu besteak beste. Artista japoniarra, emakume argia behar du izan, bestela ez luke hain itzal ederrik sortuko. Kumiren itzalak, itzelak dira. Bere hitzak, itzal.



SAREGINAK HONDARTZETAN

Oroimenak, "*Eta hau zer?*" diost.
Gurea bezalako herri arrantzaleetan, sareginak ezinbestekoak ziren. Dira?. Sasoi haietan, gurean laupabost talde zeuden, guztiak emakumeak.
Behin, talde batetako ugazabandrea, sareginei aginduak ematen hasi zen, azaltzen egun hartan bakoitzaren zereginak zeintzuk izango ziren.
"Zu Fulana 'Gibelpera' joango zara, zu Bengana 'Talapera', eta zu Zutana 'Ondartzapera".
Hori entzutean, taldeko hasiberriak erretxindurik, zera esan zion nagusiari, "*Denak hondartzetara badoaz, nork josiko ditu sareak ba?".*
Neskatilak ez zekien, *Gibelpe*, *Talape* eta *Ondartzape,* hondartzen izenak ezezik, arrantzontzienak ere bazirela.

BERTIGORIK GORENA

Orain arte niretzat, bertigo sentipena, Josu lagun minarekin lotzen nuen kontua zen. Banekien begiratoki edo etxe orratz baten goikaldetik behekaldera begiratuz gero, denok barneratzen dugun zirraratxoa zela. Batzuentzat izua.

Gaur dena mudatu zait. Bidai baten iragarki bat izan da bertigoekiko nuen ikuspuntua erabat aldatu didana. Itsas-bidaia da, Atenasen hasi eta Korintoko kanalean bukatzen dena.

Argazkian, kanalaren erdian gurutzaontzia txikia ematen du, eta izugarrizko hormek, enbutu estu baten goikaldea irudikatzen dute.

Une batean bidaiaria sentitu naiz, eta zera pentsatu dut. Agian, .. >>>

bertigorik bertigoena, behetik gora (bertigora) doana da.

FEDEGABEA

Mateo, ez zen inoiz sartu, ez eleizetan, ez mezkitetan, ez stupetan, ez sinagogetan, ez beste edozein motatako tenplu erlijiosoetan. Sekula.
Hileta, ezkontza edo beste antzeko konpromisoren bat zuenean, ateoa zenez, ate ondoan geratzen zen beti.

ANTTONI - Koinata

Euskarako irakasleak, *etazerka,* esaldi bat idatzi zuen arbelean.

"Hire neba karrikan da, eta .....

- *"Anttoni, Nola bukatuko zenuke?".*

Neskatoak klariona hartu, eta segurtasunez honela osatu zuen.

... Irene bakarrikan".

EZ DA GAUZA BERA - Atarian

Ez da gauza bera, *ederrenetarikoa izan* edo *ederren atarikoa izan*.
Sarri mingarriena, ezpainetan eztia delarik, atarian geratzea izaten da.

MIKROIPUINEN OSPEAZ

“Egunak dira euria bota-ahala ari dela, eta atzo, katemeak, esnaturik mantenarazten gintuen azken kilkerra jan zuen”.

MARIA SOLEDAD URANGA

Uranga idazle argentinar ezezagunaren kilker eta katu xumeen ipuintxoa, Monterrosoren dinosauro ospetsuarena baino askoz egiazkoagoa iruditzen zait. Euria bota-ahala aritzearena ere, oraindik behintzat geureagoa da.

PATUZKO OGIBIDEA

Jokinek, ikasketetarako dohain bereziak zituen, baina Geologia, Teologia, Pedagogia eta Ekologia karrerak bukatu ondoren, azkenean okin bihurtu zen. Herrian, patuak idatzia zegoela zioten, izena eta izana, sortzetik ‘jota’ zituelako.

ÑABARDURA TXIKIA

Umeak hezitzerakoan, familia bakoitzak bere filosofia erabiltzen du. Etxe batzuetan, 'euren baloreetan' oinarritzen dira, beste etxe batzuetan aldiz, 'euroen balor€€tan'. Maiuskula ukaezinak, edo minuskula ukiezinak. Hor dago koska.

PARIENTESIA

"Egoten jakitea, sasoiz alde egitea da".

JUAN KRUZ IGERABIDE

Luzaroan etxetik kanpo ibili ondoren, denbora labur bat senide artean igarotzea, edo baita guztiz kontrakoa, '*parientesia*' egitea da.

BI HARRI HARRIGARRI

Oharphonean, '*Bi harri*' idatzi nituen. Nahiko izan dut haietaz gogoratzeko.

Adokinak, '*ad hoc*' egindako harri puskak dira, baina inolaz ere ez harrigarriak, oso arruntak direlako.

Harritzekoak, inkek landutako harriak dira, eta haietatik harrigarriena, Peruko Cusco hirian den *Hamabi angeludun harria* (*) deiturikoa da. Esango nuke, Inkak harginak izateaz gain, '*hartistak*' ere izan zirela. Baina izatez, harginik harginena natura bera da. Bai, natura.

Niretzat, bada haitz bat, hori argi eta garbi baieztatzen duena, Al Naslaa du bere izena, eta Saudi Arabian kokatzen da. Naturak berak berez egindako ebaki zehatz batek, bi erditan bananduriko itzelezko harri harrigarria da. Sekulakoa.

Al Naslaa, harakin on batek egindakoa dirudi, harakinak izatez, haragiaren harginak bezalakoak direlako.
Bi harri hauen irudiak ikusi nituen egunean, erabat harrituta, nire oroimenean zizelkatuta geratu ziren.
(*) Angelu gehiagodun harriak ere egon badaude, baina nabarmen txikiagoak dira.

BIKIEN TELEPATIA

Urteak zeramatzan etxetik kanpo, eta anaiari ezustekoa emateko garaia zela pentsatu zuen. Bikiak ere ideia berbera izan zuen. Bi hegazkinak ia batera lurreratu ziren, hurrenez hurren.

ANTXONTXO - Fideltasuna

Ikasturtea amaitzear zegoen, eta ohikoa zen informatikako irakasleak teknologiaren bilakaera azaltzeko, bitxikeriren bat edo beste azaltzea. Bere momentu gorena zen.

"*Oraingo wifiak, 'fideltasun handia' eskatzen digu, aintzinako hi-fiak aldiz, fideltasuna eman egiten zigun, eta gorena gainera. Traolak eta segapotoak, itsasoan eta mendian dute beren jatorria, zeren ….".*

Antxontxok, Anttoniri keinua bidali, eskua altxatu eta zera galdetu zion.

"Barkatu. Herenegun, ordenagailu zaharrean nahigabe Delete tekla sakatu nuen, eta Xabierren eta Lourdesen kantak izan ezik, beste guztiak ezabatu egin zitzaizkidan.

Hau ere, ez al da fideltasun kontua?".

OHARRA- Egun hartan, Asun eta Fidel klasekideak, biak batera barrezka lehertu ziren. Urteak geroago, bikote gisa jarraitzen zuten, baina fideltasun ezaren eredu ziren. Herrian, baita etxekoak ere, 'Paradoxikoak' deitzen zieten.

GAIZKI ULERTZE INTERESATUA

Botilak, errukiz, "*Utz nazazu*" esan zion, baina gizon ahul eta malenkoniatsu hark, "*Huts nazazu*" entzun zuelakoan eginez, edaten jarraitu zuen.

ANTTONI - Abiapuntura

Irakasleak, irudimena lantzeko, arbelean '*Hasierarantza abian zeuden*' esaldia idatzi, eta *'Zer iradokitzen dizue'* galdetu zuen.
Anttoni altxatu egin zen, sabaira keinua bidali, tiza hartu, eta esaldiari jarraian, *'Asier-Arantza habian zeuden'* gehitu zion.
Hatxea lekualdatuz, guztiak mututu zituen.

ANTTONI - Dabilena ari da

Euskarako irakasleari, bere klaseak atseginagoak egiteko, gogoeta bitxi batekin hastea gustatzen zitzaion.
Behin, jarraikitasunaren balioa azaltzeko, hitz-joko bat bururatu zitzaion.

"*Edozein zereginetan, dabilena, ia beti ez da abilena izaten, baina abilena, dabilena izaten da beti*".

Bazekienez Anttoni ez zela mutu geratuko, abilaren aupegia jarri, eta "*Zer Antonella, ez duzu ezer esateko ala?*", esan zion.

Neskatoak, lotsatiaren plantak eginez, altxatu eta *sphitz* hau jaurti zuen.

"Beno,... (Irribarre maltzur bat). *'Bada hemen klasekide bat, goiz osoan zintz eta zintz dabilena, eta ez da inolaz ere klaseko zintzoena. Astoak ere...,* (itxurazko eztultxoa) *arrantzaka eta arrantzaka ibiltzen diren arren, ez dute sekula arrainik porturatuko".*

OIHU NAHASIA

Artzaina izuturik, sekulako lapsus batean erori zen, eta hitzak trukatuz, "*Ardia dator!, ardia dator!*" oihukatu zuen. Hori entzutean, otsoa erabat harrituta, ardien aurpegietako amorrazioa ikusirik, buelta eman, buztana hanka artean sartu, eta noraezean, ihesean hasi zen. Artaldea, beren beeka orro bihurturik, ahaldurik, eta ezohiko abiadan, atzetik zetorkion.

HITZEN ZINTZOTASUNA

Hitz gehienak gezurti hutsak dira, beraien izenak eta izanak batera ez dihoaztelako. Adibiderik esplizituena eta argienetarioka, *palindromo hitza* da. Baina palindromoen artean, bada hitz bat, zintzoa eta maitagarria dena, *Ama*. Izatez, *Kataratak* ere palindromoak dira, baina faltsuak, zintzoak balira, beraien ur-lasterrak bi norabideetan ibiliko lirateke. Ikuskizun zirraragarria litzateke.

EZ DA GAUZA BERA - Bereziak

Ez da gauza bera, *Bereziartua* izatea besterik gabe, edo norberaren izaeragatik, besteek *berezi hartua* izatea. Nik lagun min bat izan nuen, Luis 'Marfil', Bereziartua zena, eta herrian, berezia hartua izan zena. GB.

ARBASOEK ETA URA

Gure arbasoek, beraien baserriak eraikitzerakoan, besteak beste, eguzkiaren argia eta berotasuna, inguruko mendien babesa, eta batez ere, errekastoen hurbiltasuna izaten zituzten kontutan. Horrela gerora, ur biltzea, hurbiltzea besterik ez zen.

EZ DA GAUZA BERA - Etxepean

Ez da gauza bera, *gure etxepean katuak dira* esatea, edo *gure etxean pekatuak dira* esatea.

Berez, katuak eta pekatuak ez dira bateraezinak, miauak, konplizeak edo lekukoak ere, izan izan litezkeelako. Lehen kasuan, froga faltagatik absolbituak lirateke, eta bigarrenean, bere salaketak ulertezinak.

EZOHIKO GALDERA

Kazetariari, nahigabe, edo agian ez, (beharbada, gazta musu-truk dastatzeko martingala lotsagabea izan zen) ezohiko galdera bat atera zitzaion, "*Zuretzat zer da liburu bat?*".

Artzainak, harrituta baina patxada galdu gabe, eta artaldeari ohiko oihu eta txistu aginduak eman ondoren, lurrera begira, zera erantzun zion.

"Niretzat liburu bat, gaztai bat bezalakoa da, bai bata eta bai bestea, hausnarketa sakonen ondorioak direlako, eta baita beraien lanketan, kezkak eta keztak izaten direlako".

Mendia, hausnarketarako esparru ezin hobea da, eta artzainak eta ardiak, horren adibide argiak dira.
Agian, kazetari batzuk ere bai. Kar-kar.

EZ DA GAUZA BERA - Aberatsa

Ez da gauza bera, *aberatsa izatea* edo *abere hatsa izatea*.

Ez dira gauza bera, diru zikinaren kiratsa edo sunda, abereena baino askoz jasanezinagoa izaten delako.

NUDISTAK

Nudistak hondartzetan elkartzen direnean, *arropaturik* sentitzen dira, baina ezin dute horrela adierazi, hori, kontraesanen kapa janztea edo tesiarena eranztea litzatekeelako.

ERANTZUN BILA

Geriatrikoko psikiatra gaztea kezkaturik zebilen, ospitaleratu berri zuten emakumeak okerreko hitz bakar batekin erantzuten ziolako. Egoerari aurre egiteko, hitz bakarreko galdera bat egitea pentsatu zuen, ea horrela, erantzuna luzeagoa zen.

Galdera - "*Senarra?*". Erantzuna -"*Arra zen*".

ARITMETIKA OINETAN

Batuketek, zenbakiak batu egiten dituzte, kenketek kendu, bidertekek bidertu, eta abar, eta abar, eta abar ....

Eta abarketek?. Abarketek, zenbakiak eta pertsonak lotzen dituzte. Hainbat bider, kendu, batu eta zatitu egiten ditugu. Urratzen direnean, zortziko itxurarekin, kanta zaharretara bidaltzen ditugu.

'Abarketak urratuta zapatarik ez, Bermeon gelditu nintzan oineko miñez. Hauxe dok egia, zortziko berria, hiru txikin ardorekin librako ogia'.

DENA ALDATZEN DA

Zabaldurak, itsasoari lapurtutako lurretan hedatzen diren esparruak direla diogu, eta ohikoa da haietaz ari garenean, *Honaino, dena ura zen* esatea. Gauzak zeharo aldatzen ez badira, urte gutxiren barruan, zoritzarrez, *Honaino, dena lurra zen* esango dugulakoan nago.

Julio Numhauser (Somos taldea) txiletarraren *'Todo cambia'* abesti zoragarria, Mercedes Sosa emakume argentinarrak, bere ahots eder, garbi eta indartsuarekin, mundu zabalean ezaguna egin zuen haren mezua. Abestiaren letrak, modu argi eta eder batean, mundua aldaketa izan dela beti eta sekula santa guztian hala izango dela diosku.

Miren Amuriza & Ines Osinaga bikoteak, batak euskarara ekarri, eta besteak, abestiaren *'Dena aldatzen da'* bertsio izugarrian, munduaren aldaketak ez dituela hizkuntza mugarik adierazten digute.

Gure herrian, '*Zabal!*' esatean, *'Lasai, laster ikusiko duzu....'* esan nahi da. Beraz, zabaldura *versus* 'Zabal, laster ikusiko duzu ura'.

ANTTONI - Arrakasta

Behin, literaturako irakasle kilikak, Anttoniri galdera hau egin zion,
"*Anttoni, nola azalduko zenuke hiru hitzetan, 'arrakastatsua' hitzaren esanahia?*".
Anttoni, 'esan oneko' neskato jatorra zenez, txintxo eta azkar, hiru hitzetan eman zuen bere erantzuna.
"*Arra, kastaduna, ahaltsua*".

EZ DA GAUZA BERA - Pilota

Ez da gauza bera, *pilotan, hogeian edo hutsean geratzea*, edo *Ogeian, pilota hutsean geratzea.*

Ez da gauza bera izango, baina agian, frontoian pilota partida bat hutsean galdu ostean, Ogeiako hondartzara joan eta biluzik igerian egiteak, gertatutakoa ahazteko ere balioko duelakoan nago. Neguan batez ere.



EZ DA GAUZA BERA - Hor edo ...

Ez da gauza bera, '*Eseri hor, kidearen ondoan*' esatea edo idaztea, edo '*Eseri orkidearen ondoan*' idaztea edo esatea.
Beno, izan, izan liteke gauza bera, baina horretarako lagunak eskuetan lore hori behar du izan. "*Eseri hor, orkidea duen kidearen ondoan".*

AVNER ZIV GROSEN

Urte asko pasatu dira, paperezko ezpainzapi batean izenburuko hitzak idatzita utzi nituenetik. Ezusteko ederra izan dut, kutxa zaharrean papertxoa aurkitzean, eta bide batez, baita egun hartako kontuak gogoratzean.
Bidaia autobusez, Zurriolako hondartza jomuga, eta Mikel Laboa - Bob Dylan - Macacoren - kontzertua entzutea xedea.

Aurretik, kuadrillakoak Groseko taberna batetara joan ginen zerbait hartzera. Gure ondoan, bi lagun hizketan ari ziren, eta gaia hain bitxia iruditu zitzaidan, inolako lotsarik gabe, adi-adi 'nahigabe' haiena entzuten jarri nintzela. Beraien mintzagaia, A. Ziven delako baten teoriak eta ikerketak izan zen. Ni bitartean, aditu haren izena idazten.
Dirudienez, hark frogatuta utzi zuen, hezkuntzan umorea uztartzean, ikasleen sormena izugarri hauspotzen dela.
Nire kontakizunetan agertzen diren irakasleek ere, agian Ziveren eraginez, beren klaseetan umorea erabiltzen dute, uste osoa dutelako, irribarreak sortaraztean, mundua bera ere alda dezaketela. Eskarmentuek asko dakite.

ANTXONTXO - Kontuz!

Euskarako irakasleak, Antxontxo arbelera atera zuenean, zera esan zion: "*Idatz ezazu esaldi bat, non aditzak, ohi baino garrantzi handiagoa hartuko duen".*

Hau izan zen beltzean zuriz, Antxontxok zirt eta zart idatzi zuena,

Emakumeak bagina, izango genuke.

Irakasleak serioski, honakoa esan zuen:

"*Kontuz Antxontxo!, eta kontuz guztiok!. Esaldia, zorrotza eta gatzduna da bai, baina sarritan, bizitza kamutsa, geza edo gatzgabea ere bada. Rokintansky sindromearen ondorioz esaterako, badira 'aditz' gabe jaiotzen diren emakumeak.*

Bestalde, gerta liteke baita, zakila duen neska bat, edo bulba duen mutil bat jaiotzea. Beraz, hobe dugu guztiok, bestea, den bezalakoa delarik, errespetatzea eta onartzea, eta inor ez mintzeko, gure hitzek, 'grametika'ren arau zintzoetan oinarritzea".

IRAK - Telebistan

Kutxa zaharrean aurkitutako prentsa ebakin horixka hura ikusi nuenean, sekulako poza hartu nuen, baina baita nire barneko biki bihurriek ere.
Lerroburak hauxe dio, -Irakek, egunkari bat, eta irrati eta telebista kate bana eskaintzen ditu intelektual arabiarrentzat- 1986/01/03.
Lasaitasunez albistea zukutzera nihoan, baina bikiek 'lazuntasunez', beraien harrikada bat idaztera behartu naute.

Ez da gauza bera, ETB1ko albistegian, *'50ºtan Irak urtzen ari da'* edo *'50ºtan irakurtzen ari da'* lerroburua irakurtzea.

Muturreko kontuak dira biak, baina ez bateraezinak. Lehena, ohikoagoa denez, demagun albistea hori dela pantailan agertzen dena. Ziur nago, gutariko batzuk berria irakurri ondoren, *¡¡ Que barbaridad, Bagdad !!,* 'biroihukatuko' genukela.

OROIMENAK EZIN ORORI MEN

“Oroimena, eboluzioaren trikimailu bat da, gizakiak bere bizipenak galka dezan”.

E.TULVING

Galkatu eta galkatu egin arren, gurdiak sekula ezin izango du mendi batetako belar guztiak eraman, ipuinean ez bada.

Oroimenari ere, ezinezkoa egiten zaio bizi izandako oro gordetzea, eta nahitaez ahazturari men egin beharrean izaten da, hala izango ez balitz, inolako ezbairik gabe, damuaren mamuek zoramena ekarriko liguketelako.

Tulvingen esaldia hura oharphonean aurkitu nuenean, berehala konturatu nintzen, nire oroimenean galkatu gabea zela. Bere sasoian, irizpide onez pentsatuko nuen, papertxo batean idatzi ezean, inoiz ez nuela gehiago haren berririk izango. Ahaztura, amorruz dago.

ELE ALDAKETA

Ostiraletan, euskarako irakaslearen irribarreak, harrikadaren bat iragartzen zuen. Ohikoa zen. Behin...

"Duela urtebete, nire kolega eta lagun min batek, bitan pentsatu gabe, herritik alde egin zuen.
Sarean norbait ezagutu zuen, harekin kartolataraino maitemindu, eta harengana joatea erabaki zuen. Gaur, mezu hau bidali dit".

Aupa txo!. Ea noiz zatozen txirigotak abestera. Hemen, 'elea' aldatu behar izan nuenez, orain 'iraklasea' naiz, kar!. Hitz hori silabikoki irakurtzen denean, nire ikasgela aipatzen da, kar, kar!.
Lankideei eta ikasleei, ele aldaketaren kontua azaldu nienetik, orain ni hemen denentzat, 'El iraklase de mate' naiz.

ANTTONI - Zeta

Historiako irakasleak, Anttoniri galdera hau egin zion, -"*Historian, zetak noiz eta non izan zuen garrantzia?".*
Patxada handiz, denen harridurarako, neskatoak 'esphitz' hau bota zuen.
"*Badakit aintzinean, Zetaren Bideak Txina eta Mendebaldea lotu zituela, eta hori sekulakoa izan zela munduarentzat, baina nik, zetaren gaiari beste ikuspuntu zeharo ezberdin batetik heldu nahi diot. Herriak sortzerakoan, zetak ezinbesteko garrantzia izan zuen. Zarautzen esaterako, bere izenaren sarrera-irteerak, harekin trazatu edo marratu zituzten. Bestalde, hura gabe, nire mutila ez litzateke Zigor izango, nonbaiteko Igor arrunt bat baizik. Zetarik gabe, zura ere, ura besterik ez litzateke, eta gure 'zentzumen' sortari, lau hatz moztuko genizkioke. Atsekabetuak ginateke".*

IZEN BAT, BI SENTIPEN

Papertxo batean, izen bat eta *'bi sentipen'* hitzak. Izena Garbiñe Basarte, eta azpian, aipatutako esaldia. Irakurtzerakoan harrituta geratu naiz, emakume hori nor ote, eta zer esan nahi izango nuen misteriozko bi hitz hoiekin. Eskerrak gaur egun, klik batean informazioa eskura dugula, hala sareak berehala esan didalako, Garbiñe, artista lizartar bat dela, eta bere lan gehienak kaleetan egiten dituela. Basarterentzat, kaleak koadernoak edo mihisek dira.

Haren arteak txunditu egin ninduen, eta nire sentipenak azalarazi zidaten irudiak, aspaldi itxita dauden denda zaharrak, irekita baleude bezala margotuta ikusten direnak izango ziren. Inolako dudarik gabe, nire bi sentipenak, lilura eta nostalgia, biak hurbil, baina biak erabat kontrajarrian.

ABIZENEN FAMA EDO ZAMA

Gezuragatarrek, belaunaldiz belaunaldi lagunen txantxei aurre egiteko, beren abizenaren etimologia azaltzen ibiltzen ziren, "*Gu, errekatik gatoz, hango ur geza edo gez-ura da gure sustraia, eta inolaz ere ez gezurtiak 'ginegarelako".* Lagunek, "*Bai, bai, bai...*" zioten.

Haien familiako emakume politena, atseginena eta xarmantena, Aitor Mena Egia mutil-puska harekin ezkondu zen egunean, atsekabe handia izan zuten. Jatetxeko zerbitzari berritsu batek, mutil lasai eta itxuroso harekin ez fidatzeko esan zien, bere izen-abizenen 'etimologia zintzoa dela' ozenki eta lau haizetara zabaltzen ibiltzen zen arren, mutil hura 'gezurtienen artean gezurtiena', eta iruzurgilea ere bazelako. Jeloskor baten 'gezurmena' izan zen.

EZINTASUNA

Bikoteen osatze eta biziraun tze kontuetaz, denetik ikusitakoak gara, elkarren antzekoak izandakoak batu eta berehala banantzen, eta bata bestearen antipodetakoak aldiz, bizitza osoan zoriontsu izaten.

Itsaso Barea eta Eliseo Zelaiak, hain urrunekoak eta desberdinak izanik, uste zuten posible izango zela beren artekoa gauzatzea, baina ez, ezin dute elkar ikusi. Haiena ezinezkoa da, ahalordez ez bada.

Bi izen hauen inguruan, euskarak ematen digun umorezko ikuspegia alde batera utzita, bai batak eta bai besteak, oso historia interesgarriak dituzte. Hori bai, beti banandurik.

JÓLABÓKAFLÓD

Oharphoneko hitz arraro batek, nire oroimena Islandiaraino bidali du. Nola ahaztu halako bitxikeri eder bat, behin irakurri eta sekula santan ez ahazteko modukoa bada. Hango hizkuntzan, hitz horren esanahia *'Liburuen Gabon uholdea'* da.

Ohitura zoragarria da, gure bi herrien arteko distantzia geografikoa baino askoz urrunago dagoena.

Islandian, Gabon gauean, elkarri liburu bat oparitzen diote, eta berehala gau berean, txokolate katilo bat ondoan dutelarik, gozo-gozo, denak hasten dira hitzak zukutzen. Hango lurretan, hitzak eta istorioak landatu, eta berehala egundoko fruituak ematen hasten dira.

Ohitura eder horren berri izan nuenetik, lurralde hura niretzat *Hitzlandia* da betirako. Hitzak landatzen dituen herria.

ANTXONTXO - Lagunekin

Antxontxo, koadrilarengana heldu zenean, hauek, ezohikoa bazen ere, basoko lanetaz hitz egiten ari ziren.

Solasaldiaren zurrunbiloan muturra sartu zuenean, baserrian bizi zen lagun bati, zera entzun zion esaten, "*Gurean ere, hamaikatxo haritz azerratzen da".*

Antxontxok, hark ere zerbait esateko zuela, *'E....'* edo antzekoren bat ahoskatu zuenean, beste guztiak isildu egin ziren, bazekitelako hura arrantzale girokoa izanik, hark berea zuen beste 'bideren' bat hartuko zuela. Ondo ezagutzen zuten elkar.

Irribarre maltzur batekin, Antxontxok zera esan zien, "*Gurean ere, ama, hika aritzean haserretzen da txo!".*

Algaraka eta *'Banekien'*ka bukatu zuten.

SATURNO PLANETAN

Oroimenak, *'Eta hau ere, ona, ez?'* diost.

Hirurogeigarren hamarkadan, egunkari batean, gazteleraz, artikulu hau agertu zen;

"Banekien Bermeo herri ekintzailea eta aurrerakoia zela, baina inoiz ez nuen imajinatuko ere, nire begiak lekuko izan diren arte, hangoak, besteongandik hainbeste argi-urtetara egon zitezkeenik".

Antza denez, kazetaria gure herritik zebilela, harrituta geratu zen, portuko tailer batean itsatsita ikusi zuen karteltxo bat irakurri zuenean. Gazteleraz idatzirik, hau zioen.

Saturnon nago,
bazkalorduan helduko naiz.

Tailerreko langileak (demagun Saturrek) idatzitako ohartxoarekin, izen bitxi hori zuen arrantzontzi batean lanean zegoela adierazi nahi zuen. Rio de Janeiro ere izan ziteken.

ANTTONI ETA AMONA

Irratiak albistegian emandako lerroburu batek, Anttoni eta amonaren arteko eztabaida piztu zuen. Beno piztu-piztu, neskatoa piztu zen, pospoloa haren jarreran zegoelako. Amona, lasai-lasai, irribarre batekin, josten jarraitzen zuen.

Amonak, berak irratiari entzundakoa aipatu besterik ez zuen egin, "*Bilboko jaietan, haizeak maiz joko du*""
Bilobak, "*Amona mesedez!*" erantzun zion. Gero, sutsuki zera gehitu zuen, "*Irratiak esan duena, -Bilboko jaietan, Zea Maysek joko du- izan da*".

Irratiak albistea sakondu zuenean, dena argitu zen. Amonak arrazoia izan zuen. Jostea utzi, eta zera esan zion bilobatxoari, "*Maitea, zuk gogoarekin entzun duzu, eta ez entzumenarekin*".

IRAKASLEAREN ¡ALELUIA!

Irakasle hura, tipo jatorra zen, baina erabat iluna eta gatzgabea. Behin, ikasle guztien harridurarako, hitz-joko batekin hasi zuen bere klaseko jarduna.

"*Neronek esana da, 'Talentu ezkutuek ez dute ezertarako balio', baina hori, orain neronek esana ere bada, itzulpen hau, neronek egindakoa delako".*

Barre-algara kolektiboa hastera zihoan, irakasleak listua irentsiz, eskua altxatu, eta *'Itxoin mesedez'* esan zienean.

"*Badakidanez musika zaleak zaretela, ea ezdagauzaberaka hau gustukua duzuen. Ez da gauza bera, 'Leonard Cohen nagusia zendu da' esatea,* edo *'Leo narkoen nagusia zendu da' esatea".*

Ikasleak txaloka ari ziren bitartean, bere barne ahotsak, *¡Aleluia, Aleluia!* zion.

EZ DA GAUZA BERA - H. Cano

Ez da gauza bera, Harkaitz Cano peli batean ikustea, edo harkaitz batean, pelikano bat ikustea.

Ez dira gauza bera izango, baina ez litzateke batere arraroa izango, gure idazle polifazetikoenak duen itxura galantarekin, noizbait film batean parte hartzea, eta galai-papera egiten noski. Demagun hala dela.

DEMAGUNKA - Bat

Hark Izcano aktore ospetsua, Txileko San Antonion, film bat grabatzen ari da. Etenaldi luze batean, hango portutik pasealdi bat egitea erabakitzen du. Pozik doa, txistuka.

Tupustean, harkaitz batean pelikano bat ikustean, berehala eta irribarre batekin, istorio bat asmatzen du. Aktore-idazlea, hegaztiarengana hurbiltzen da, eta zera esaten dio, "*Egun on Pelikano agurgarria, eta barkatu zure atsedena apurtzeagatik. Badut nik zurekiko nolabaiteko lotura bat. Biok gara mokoluzeak, bai, zu ahaltsua eta ni berritsua, baina esatera noakizuna ez da hori, gure izen abizenekin zerikusia duen kontutxo bat baizik. Entzun nazazu.*

Gure aitona Felixi, (keinu maltzur bat egiten dio) etxekoak 'Peli' deitzen genion, baina herrian, 'Pelikano' ezizenez ezagutzen zuten, beraz, ... (hegazti nekatuak, ospa egin dio)". Idazleak, triste-plantak eginez, *"Agur, urruneko ahaide hegalduna"* diotso.

DEMAGUNKA - Bi

Hark Izcano aktore ospetsua, Txileko Quintayen, film bat grabatzen ari da. Kostaldeko herri hartan, urpeko kirola da batik bat, turismoa erakartzen duena. Arraroa bada ere, zineak ere badu gai horretan, bere tarta zatitxoa.

Filmaren gaia, hantxe aspaldi zegoen balea-industria izango da, historia eta istorio ugari baitira han gertatutakoaz. Afalorduan, aktore-idazleak hurrengo liburuan du pentsamendua, eta kideen marmarioa, lagungarri izaten ari zaio ideia berriak aurkitzerakoan. Pozik dago. Halako batean, mahaikide batek "*Pelicano' de Gustavo Letelier*" aipatzen du. Antza denez, filma hori ere bertan grabatu zen. Izenburuak, idazlean *Klik!.* Goiargiak, "*Aitona Felix eta Klik!*" diotso, ateraldi baten eskematxoa bidaliz.

GALOREN GALBIDEA

Galok, hemezortzi urte egin zuen egunean, "*Eta ni zer?*" galdera xuxurlatu zuen. Barneko ahotsak, "*Gal zaitez!*" proposatu zion, eta Galo esaneko tontolapikoa zenez, GALeko kidea egin, eta erabat galdu egin zen.
Batzuk diotenez, orain Galizan bizi da.

EZ DA GAUZA BERA - Zuzentzea

Ez da gauza bera, "*Zuzendu zinenean, dena ondo joan zitzaigun*" esatea, edo "*Zu zendu zinenean, dena ondo joan zitzaigun*" esatea.

Ez, ez dira gauza bera, baina noiz behinka, norbait zentzea eta dena zuzentzea, biak batera izaten dira.

ANTXONTXO - Azkena

Kaleratzeko ordua gainean zenez, irakaslea arbela ezabatzen hasi zen, ikasleak txandalak janzten eta liburuak motxiletan sartzen ari ziren bitartean.

Klarionezko hitzen garbiketa, arinka eta presaka egindakoa izan zenez, han zeuden hitzetatik bat, oraindik borratu gabe, bakardadean, agerian zegoen. Begi-bistako hitza, '*balira*' aditza zen.

Irakaslea konturatu zenean, "*Ei, itxoin!!!, azken galdera!!!. Arbeleko 'balira' horrek zentzua izan dezan, zein beste hitz edo aditz gehituko zeniokete?",* esan zien.

Ikasturtea azken txanpan zegoenez, Antxontxo oporretan amesten hasia zen, eta betiko irribarre maltzur harekin, "*Balira bidaiatzea!*" erantzun zuen.

ANTTONI - Azkena

Euskarako irakasleak ikasleen sormena lantzeko, ikasleei *'Ez da gauza bera,..'* ariketa jartzeko ohitura zuen.

Behin, galdera gelaratu zuenean, gelakide guztiak konplot lotsagabean, Anttonirengana zuzendu zuten beraien begiradak. Haren 'tiroaren' zain zeuden.

Neskatoa altxatu, eta asperdura aurpegia jarriz, honako hau esan zuen.

"*Ez da gauza bera, 'Bera ezgauza da' (txikitasuna) esatea, edo 'Bera, ez da gauza' (ezgaitasuna) esatea".*

Esandakoak harriturik utzi zuen entzunlegoa, gehiago espero zutelako.

Neskatoak orduan bai, bihurri itxura jarri, eta ahaldurik azkena bota zuen.

"*Ez da gauza bera, -Gaur Donostian, sudandar bat izan da lasterketan- esatea, edo -Gaur Donostian, su-dandar bat izan da. Laster ketan- esatea".*

Hi, *aditzei* eta *hitzei adi* ibili hadi.

Amaieraren melodia

‘Hasiera bat’

MELODIA

Aurreko idazlanetan, kasuan-kasuan, argi utzi nuen zein musikak izan ziren nire sormenarekin bat eginez, hitzak eta ideiak kateatzen lagundu zizkidatenak. Liburuxka honek ordea, ez du soinu-banda argirik izan, nire ateraldiak idazterakoan algaraka ibili naizelako.

Azken ukituak ematen eta zuzenketak egiten hasi nintzenean ordea, euskal musika munduan izandako 'berri on' batek, nire entzumena gozoki laztandu zuen, eta txunditze une goren haiek, idazlan honekin estuki lotuta daude.

Itzelezko diska horren izenburua, *'Hasiera bat'*, nolabait, kontrajarrian legoke liburuxka honek hitzaurretik azaltzen duen amaiera mezu argiarekin, baina izatez, hasierak eta amaierak banaezinezkoak dira, egun bereko egunsentiak eta ilunabarrak direlako.

BAT, BI

Bizpahiru hilabete geroago, zuzenketen azkenurrengo fasean nengoela, egun batean, euskal herrietatik urrun, abeslariarekin tupust egin nuen. Sorbaldan txalotxo bat eman, eta ¡Diska itzela! esanez agurtu nuen. Bere kantek nire liburuaren amaieran izan duten eraginetaz, fitsik ere ez nion esan.

Hango eta hemengo eguraldi kontuei tartetxoa, eta iaz bertantxe, biloba txikia orgatxoan neramalarik, berarekin ateratako argazkia ere gogoratu genuen. Besterik ez, ez zen unea. Banekienez, bera, diska atera eta gero, berealdiko ihesaldi baten erdian zegoela, senak, zera esan zidan, "Tipo izariduna da, JK Igerabideren igeri-bide berekoa, egoten dakiena, sasoiz alde egiten duelako, eta egiten duenean, erabakitasunez, *bi aldiz pentsatu gabe*".

HIRU

Bihar edo etzi, han, hemen edo beste nonbaiten, berarekin hirugarrenez topo egiteko aukera izango banu, liburu honen ale bat oparitu, eta trukean, bere 'Kaieran' sinatzea eskatuko nioke. Niri berdin zait non, baina nahiago nuke, topaldia 'han bertan' izatea, hala balitz, lasaiago eta luzeago hitz egiteko aukera izango genukeelako. Senak ere, zera diost, "*Hasieratik amaierara,* solasaldi atsegina izango zenukete". Liburuak, banantze egunaren zain dira.

Hasierak eta amaierak,
lili baten ernetze eta ihartze uneak bezala,
naturaltasunez gertatzen direnean,
xumeak bezain ederrak dira.

Hitzatzea

Markos Zapiain

Hasiera batekin amaitu duen arren Joseba Mikel Ugaldek *Lazunaren izariaz* hau, liburu osoa kontuan hartuta, alde handiz gailentzen zaio amaiera hasierari. Hain nabarmen azpimarratu digu liburu hau amaiera dela, irudi bailuke, idazlearen obraren bukaeraz gain, Joseba Mikel lagunaren bukaera ere iradokitzen ari zaigula. Larregi erretzen du. Ezinegonak jo nau.

Dena den, ez gaitzala drama-goseak behar baino arinago amildu putzuan. Egunak iluntzea eta goiztiria biltzen dituen legez, lazunaren izariak —xumea bada ere— lortu du irakurlea beltzaren muinetik muino koloretsuetara eramatea; bizitza, liburuaren esanetan, beltza barruan duen ortzadarra baita.

Kolore horiek pizteko, Ugaldek ez ditu baliatu gaur egun nagusitu zaizkigun joera literarioak, erosoago baitabil Raymond Roussel, Ramón Gómez de la

Serna eta Markos Gimenoren mundu olgetakoetan. Eta olgetak dakar beneta. Ez da harritzekoa Gimenok eta Ugaldek beren liburuak elkarri bidali izana, unibertso bertsuan bizi baitira.

Nagusien zein gazteen literatura nagusian kontakizuna duzu funtsa, eta kontakizunaren baitan kokatzen dira hitz-olgetak, apaingarri gisa, edo albo-kalte. Aldiz, Ugaldek hitz-jolasa izaten du oinarri eta abiaburu, eta hitz-jolasaren garapenak dakar kontakizuna. Patuak agindu zuen, adibidez, Jokinen ogibidea:

"Jokinek ikasketetarako dohain bereziak zituen, baina Geologia, Teologia, Pedagogia eta Ekologia karrerak bukatu ondoren, azkenean okin bihurtu zen.
Herrian, patuak idatzia zegoela zioten. Izena eta izana, sortzetik 'jota' zituen".

Jostari eta dantzari baitabil bermeotarra hizkuntzarekin. Ezusteko fonetikoak eta gramatikalak, zentzu bikoitzak, analogia absurduak eta edozein brikolaje darabil efektu erritmiko eta komikoak sortzeko eta asmakizunak eta istorioak eratzeko eta eraldatzeko. Betiko logika zapartaturik, hitzaren eta errealitatearen arteko harremanen ezaugarri bitxiak ikusarazten dizkigu.

Ametsetan balego bezala ikusten du batzuetan lazunak eguneroko bizitza, eta horri esker suma dezake zenbait gaizki ulertze interesatuak direla:

"Botilak, errukiz, 'Utz nazazu' esan zion, baina gizon ahul eta malenkoniatsu hark, 'Huts nazazu' entzun zuelako itxurak egin eta edaten jarraitu zuen".

Edozein bide har dezake lazunaren berbak, edozertarako baliatzen du Ugaldek, hala nola protesta sozialerako, irakasleak Anttoniri “arrakastatsu” zer ote den hiru hitzetan azaltzeko eskatu eta neskak “ar kastadun ahaltsua” erantzuten dionean; edota “aberats” eta “abere hats” bereizi eta batzen dituelarik: ez dira gauza bera, diru zikinaren kiratsa edo sunda askoz ere jasangaitzagoa izaten delako animaliena baino. “Zurea ‘aberasta**sunda**’ da!!”.

Edozelan ere, kezkaturik utzi nau lazunaren despedida-aire horrek. Zergatik ez zuen tabakoa utziko. Banoa eskelak begiratzera.

MARKOS ZAPIAIN

Aurkibidea

3
Hitzaurrea
Beltzaren muinetik, koloreen muinoetara

17
Lazunen izariaz
Kontakizun irritsuak

73
Amaieraren melodia
'Hasiera bat'

79
Hitzatzea
Markos Zapiain

Leitzaran Grafikak, S.L. Andoain (Gipuzkoa) 2024

Hauxe da Claudio Eliano erretoriko erromatarrak, *De natura animalium* liburuan, 'Mugil cephailus' edo lazunetaz idatzi zuena.

'Arrain horretatik, bere neurritasuna, izaria eta jatuntasunaren kontrola nabarmentzen dira. Beste arrain eta itsas animalia biziak inoiz ez dituenez depredatzen, esaten da haiekin itun bat egin duela; izan ere, bere elikagaia hildako arrainetan bakarrik aurkitzen du, eta berak buztankada baten bidez egiaztatzen du jan aurretik hala den ala ez'.

Liburu honen azal eta herzur-mamiak, hau da, nire azalpenak, gogoetak, mikroipuinak, kontakizunak, eta batez ere ateraldiak, bat datoz lazunekin, haiek bezain xumeak direlako.

MARRAZ KANPO ASKEAGO